

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan, gure enpresa aurrera eramateko funtsezkoak izango diren elkarteak aipatuko ditugu, hau da, bakoitzaren funtzioa adierazi eta garrantzia lehenetsiko dugu. Horretarako, garrantziaren arabera ordenatuko ditugu.

Lehenik eta behin, nahitaezkoa da gure ondasuna produzitu ahal izateko beharrezko materialak eskuratzea, horretarako, hainbat hornitzailekin kontaktuan jarriko gara. Hasteko, gailua osatzen duen karkasa eskuratzeko Legazpiko Plasnor enpresarekin kontaktatuko dugu, hauek, ABS motako plastikoa eraldatuko dute gure gailuaren karkasaren forma eman arte. Gomazko botoiak ere eskuratuko dizkigute eta hauek kautxuz eginak egongo dira. Horrez gain, gailuaren pantaila Huelvako Alfalite enpresaren eskutik lortuko dugu. Prozesadorea aldiz, Infotronik enpresa Bizkaitarrak eskuratuko digu. Jarraian, bateria eta plaka nagusia eskuratzeko, Samsung enpresarekin kontaktatuko dugu. Azkenik, gailuaren kartoizko kaxa eta paperezko jarraibideak lortzeko, Zumarragako ZUMARDI inprentarekin eta Cartonajes VAHL enpresa Gipuzkoarrarekin jarri gara harremanetan.



Behin produktua sortuta, hau salmenta puntuetara banatu behar dugu. Horretarako Correos banaketa enpresara jo dugu. Enpresa honekin kontaktuan jartzea pentsatu dugu beraien segurtasuna dela eta banaketa enpresa fidagarrienetarikoa bat direlako. Gainera, produktuak banaketa prozesuan kalteren bat jasoz gero, konpentsazio moduan ondasunaren balioa ordaintzen digute.

Horrez gain, ezinbestekoa da produktua gorde eta muntatzeaz gain enpresa gestionatu dezakegun toki bat edukitzea, horretarako, Uggasa (Urola Garaia Garatzen) enpresara joko dugu. Uggasa, 2 urteko epe baterako eta hilabetean 90€-ren truke lokal bat eskeintzen duen Legazpiko



enpresa bat da. Horregatik, gure proiektuari hasiera emateko aukera ezin hobea dela uste dugu.

**coches.net**

Inguruko enpresetan erositako material guztiak lokalera eramateko eta behin gailua montatuta korreos enpresari eramateko, enpresarako auto bat edukitzea garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik, bigarren eskuko autoak saltzen dituen "coches.net" web gunearen bidez, gure beharretara egokitzen den auto bat saltzen duen pertsona batekin kontaktuan jarri gara. Autoa,

127.000km dituen Seat Ibiza bat da, 6.050€-ren truke eskuratu dugu, eta eman behar diogun erabilerarako aukera ezin hobea dela uste dugu.

Enpresa gestionatu ahal izateko eta web gunea sortu eta kudeatzeko, taldekide bakoitzak bere ordenagailua edukitzea garrantzitsua izan daitekela uste dugu, horregatik, INFOMADAIA Urretxuko elektronika dendarekin kontaktuan jarri gara.



**info**madaia

**bankinter.**

Ezinbestekoa da diru kopuru bat elkartzea edozein material, produktu... erosi aurretik. Horretarako, taldekide bakoitzak jarriko duen diru kopuruaz gain, Bankinter bankuari mailegu bat eskatzea pentsatu dugu. Banku hau aukeratzearen arrazoia, mailegu bat eskatzerakoan komisio gutxien kobratzen dituen bankuetako bat dela da.

Azkenik ElevenLabs debaldeko adimen artiziala erabiliz hizkuntza guztietako ahotsa jarriko dugu, hau egiteko adimen berarekin audioa detektatu eta testu formara eraldatuko du, ondoren beste hizkuntzetara hitzuli ahal izateko.

**II**ElevenLabs